

**LEHEN HEZKUNTZAKO 3.  
MAILAKO DIAGNOSTIKOAREN  
BARNE EBALUAZIOA**

**APLIKAZIO GIDA**

**EREDU PROBAK**



### 3. APLIKAZIO ETA ORIENTABIDEEN GIDA

Eskuliburu hau ikastetxeetan probak aplikatzeaz arduratutako pertsoneri zuzenduta dago. Ondorengo helburuak izan dira kontuan berori egiteko:

- Barne ebaluazioaren plangintza egiterakoan ikastetxearentzat lagungarri izan daitezkeen ereduak eskaintzea.
- Lehen Hezkuntzako 3. mailako Ebaluazioaren aplikazioaren alderdirik garrantzitsuenak azpimarratzea.

Probak hemen aurkezten den ebaluazio ereduaren arabera egitea erabakitzen duten ikastetxeek prozedura eta irizpide bereberekin egitea gomendatzen da. Ondorioz, komeni da:

- ✓ Jarraibideak zorrotz betetzea.
- ✓ Aplikazio protokoloak errespetatzea.

Eskuliburu honetan aurkezten dira beharrezko diren dokumentu guztiak (orientabideak, zuzenketa irizpideak, konpetentzietako probak...), datorren maiatzeko ebaluazio probak ISEI-IVEIk eta Berritzeguneez egokitutako materialen bidez egitea erabaki duten ikastetxeek, hala egin ahal izan ditzaten, modu erraz eta eraginkor batean, dela paperean (konpetentzia guztiak), dela ordenagailu bidez (Konpetentzia Linguistikoa euskaraz eta Matematikarako Konpetentzia).

#### **PROBA EREDUAK ORDENAGAILU BIDEZ**

Aldez aurretik webgunetik jaitsi eta erabili ahal izango dituzte ikastetxeek beren ikasleekin webgunean aurre-ariketa gisa aurkezten diren proba ereduak, ikasleek behar bezala ezagutu ahal izan ditzaten proben antolaketa modua eta erabiliko diren itemen tipologia. Konpetentzia guztietako proba ereduak aurkezten dira paperean egiteko moduan, eta ikastetxeek, gainera, eskueran izango dituzte ordenagailu bidez egiteko moduan ere ondorengo konpetentzietakoak:

- Konpetentzia Linguistikoa euskaraz
- Matematikarako Konpetentzia

Proba hauek ordenagailu bidez egitea erabakitzen duten ikastetxeek zuzen jarraitu beharko dituzte probok ordenagailu bidez aplikatzeko proposamen gisa aurkezten diren jarraibideak.

#### **3.1. PROBA OROKORRAREN APLIKAZIO GIDA**

Ikasturteko maiatzean egingo diren barne ebaluazioko probak ordenagailuz edo paperean egin ahal izango dira. Probak ordenagailuz egitekotan, Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleek ikastetxean eskuragarri dagoen Eskola 2.0 programaren informatika ekipamenduko ordenagailuak erabiliko dituzte. Ebaluazioaren aplikazio eguna hurbiltzen denean, ISEI-IVEIk probak eskuratzeko eta ebaluatuko den ikaslearen datuak sartzeko modua azaltzen duten jarraibideak jarriko ditu ikastetxeen eskura.

Hemen aurkezten den aplikazio proposamena malgua da eta probak elkarren segidako bi goizetako lehen saioetan aplikatzera zuzenduta dago. Ondorioz, ikastetxeak erabaki ahal izango

du non eta nola aplikatzen dizkien probak ikasleei, baina konpetentzia bakoitzean jarraitu beharreko aplikazio jarraibide orokorrak eta protokoloa errespetatzea gomendatzen da.

Ebaluatutako konpetentzia bakoitzerako koaderno ezberdinak erabiliko dira.

Ikastetxeko Ebaluazio Batzordeak, ikastetxeko talde guztiek proba egun berean eta protokoloa (ordena, iraupena, etab.) betez egiten dutela zainduko du. Horrek alde aurretik plangintza egitea eta prozesu osoan zehar koordinatuta aritzea eskatuko du.

**BI EGUNEKO APLIKAZIO PROPOSAMENA<sup>1</sup>**

| LEHEN APLIKAZIO EGUNA                   |              |                                     |          | BIGARREN APLIKAZIO EGUNA                       |              |       |          |
|---|--------------|-------------------------------------|----------|--|--------------|-------|----------|
| Lehen Hezkuntzako 3. maila              | Jarraibideak | Proba                               | Iraupena | Lehen Hezkuntzako 3. maila                     | Jarraibideak | Proba | Iraupena |
| Ebaluazioaren antolaketa eta aurkezpena |              |                                     | 10-15´   | Ebaluazioaren aurkezpena                       |              |       | 5´       |
| Gaztelania: entzumena eta irakurmena    | 5´           | 40´                                 | 45´      | Euskara: entzumena eta irakurmena              | 5´           | 40´   | 45´      |
| Atsedenaldira laburra                   |              |                                     | 10´      | Atsedenaldira laburra                          |              |       | 10´      |
| Matematikarako kompetentzia             | 5´           | 40´<br>Kalkulua (6´)<br>Proba (34´) | 45´      | Ingelesa: entzumen eta irakurmena eta idazmena | 5´           | 40´   | 45´      |
| Atsedenaldira luzea edo jolas-ordua     |              |                                     | 20´-30´  |  |              |       |          |
| Kompetentzia zientifikoa                | 5´           | 40´                                 | 45´      |  |              |       |          |

Probak hasi baino lehen ondorengo materialak eta baliabideak prest daudela ziurtatu behar da:

- ❖ Aplikazio eskuliburua eta jarraibideen protokoloa.
- ❖ Proba ezberdinen koadernoak (dagozkionak).
- ❖ Taldearen zerrenda.
- ❖ Hizkuntzarako kompetentziaren audioak.
- ❖ Kalkulagailuak eta orri zuriak (matematikarako kompetentzia).
- ❖ Boligrako/bolaluma, borragomak, arkatzak, etab.
- ❖ Erlojua.

Egun bakoitzean hainbat kompetentzia ebaluatu ahal izango dira. Lehen eguneko lehen saioaren hasieran, aplikazioaz arduratutako irakasleek probak aurkeztuko dizkiete ikasleei. Horretarako 10-15 bat minutu erabiliko dute. Azaldu, zalantzak argitu eta lanaren garapenean motibatuzeko fasea da.

Ondoren, kompetentzia bakoitzaren proba hasterakoan dagokion aurkezpena egingo da. Horretarako, bakoitzaren jarraibide orokorrak eta koaderno bakoitzean daudenak erabiliko ditu. Edonola ere, ozenki eta poliki egingo da aurkezpena eta laburra eta erraza izango da. Jarraian, sor dakizkiekeen zalantzak galdetzeko aukera emango zaie ikasleei. Zalantza horiek proba hasi baino lehen argituko dira.

<sup>1</sup> Hizkuntza eta Literatura Komunikaziorako Kompetentziaren **euskarazko eta gaztelaniazko mintzamen eta idazmeneko** dimentsioen ebaluazioak beste saio batzuetan aplikatuko dituzte irakasleek, eta ahal bada egun ezberdinetan. Ikastetxeak erabakiko du horiek lantzeko unerik egokiena eta modurik eraginkorrena. Agiri honetan mintzamen eta idazmeneko proba hauek egiteko orientabideak eta ebaluazio irizpideak ere erantsi dira.

Ikasleek banaka eserita eta isilik egingo dituzte errendimenduko probak.

Ondoren, hurrengo konpetentzietako proben aplikaziorako protokoloa, bai paperez bai ordenagailuz, aurkeztuko da: Hizkuntza eta Literatura Komunikaziorako Konpetentzia (entzumena eta irakurmena eta ingelesez idazmena ere bai), Matematikarako Konpetentzia eta Konpetentzia Zientifikoa. Protokolo hori aurreko Ebaluazio Diagnostiko probetan erabilitakoaren antzekoa da eta, ondorioz, kanpo ebaluazio estandarizatu baten aplikaziorako pentsatuta dago. Hala ere, ebaluazio honetan ereduak aplikazio gisa balio dezake.

**PAPEREZ APLIKATZEKO  
JARRAIBIDEAK**





## AURKEZPEN OROKORRA

Irakasleek ikasleei jarraibideak hitzez hitz eta ozenik irakurtzea gomendatzen da.

Gaur eta bihar, bost konpetentzien inguruko probak egingo dituzue. Hauek: Euskara, Gaztelania, Ingelesa, Matematika eta Zientziak.

Ikasle bakoitzak, bere ariketak egin behar ditu, zuen artean batere hitz egin gabe. Eskatuko dizuet saia zaitezten ahalik eta ondoen egiten. BOLIGRAFOA edo ARKATZA erabili ahal duzue idazteko.

Gaur hiru proba egingo ditugu: *[Arbelean idatzi]*.

- . **Gaztelania (entzumena eta irakurmena)**
- . **Matematika**
- . **Zientziak** (jolas-orduaren ondoren)

Bihar beste bi egingo ditugu:

- . **Euskara (entzumena eta irakurmena)**
- . **Ingelesa (entzumena eta irakurmena eta idazmena)**

## HONAKOAK IZANGO DIRA KOADERNOETAN AURKITUKO DITUZUN PROBA MOTAK *[Arbelean adibide bat idatzi]*.

### 1. LEHEN GALDERA MOTA

Erantzun zuzen bakar bat aukeratu behar duzu, edukiko dituzun lau aukeren artean. Erantzuteko, zirkulu batez inguratuko duzu / inguratu behar duzu zure ustez zuzena den erantzuna.

Galdera bat erantzun ondoren, oker egin duzula uste baduzu, BORRATU erantzun hori edo ONDO MARRATU GAINETIK, eta zirkulu batez INGURATU zure ustez egokia dena orduan.

### 2. BIGARREN GALDERA MOTA

Galdera batzuk erantzuteko, taula bat aurkituko duzu eta X batez markatu beharko duzu zuretzat erantzun zuzena dena bi edo gehiago aukera edo gehiagoren artean.

### 3. HIRUGARREN GALDERA MOTA

Ikusiko duzu galdera batzuk irekiak direla, erantzun librekoak. Horrek esan nahi du ZUK idatzi behar duzula erantzuna. Eta horretarako aurkituko duzu zuriune bat libre.

Ulertu duzue? Zalantza bat baldin badaukazue, altxatu eskua orain, eta galdetu.

## COMUNICACIÓN LINGÜÍSTICA Y LITERARIA EN CASTELLANO

### COMPRENSIÓN ORAL Y ESCRITA

Ahora vamos a hacer la prueba de Lengua Castellana. En la mesa sólo podéis tener BOLÍGRAFO o LAPICERO y, si queréis goma de borrar y tipex.

Esta prueba tiene 2 partes:

1. **COMPRENSIÓN ORAL**
2. **COMPRENSIÓN ESCRITA**

A continuación, se reparten los cuadernos de *COMPRENSIÓN ORAL Y ESCRITA*.

El profesor o profesora lee las instrucciones en voz alta y despacio.

**Ahora vas a escuchar dos textos orales y luego tendrás que contestar a varias preguntas. Unas serán fáciles y otras algo más difíciles.**

**Cada uno de los audios lo escucharás dos veces y tienes que elegir la que creas que es la respuesta correcta.**

**Contesta a la vez que escuches el audio.**

**No empieces la prueba todavía.**

**Tienes 40 min para responder todas las preguntas que aparecen en el cuaderno.**

Os voy a dejar unos minutos para que leáis primero las preguntas de cada texto oral.

Ahora pondré el audio. Mientras escucháis vais respondiendo las preguntas. Al terminar cada uno de los audios os dejaré un minuto para que podáis repasar vuestras respuestas.

*Cuando la segunda grabación finalice y después de un minuto, el profesor-a se dirigirá al grupo diciendo:*

Ha terminado la prueba de comprensión oral. Pasad a la página de comienzo de la comprensión escrita y seguid con la prueba. Ahora encontrarás varios textos sobre los que tendrás que contestar algunas preguntas.

*Cuando hayan transcurrido 35 minutos y, por tanto, falten 5 para acabar, indicará:*

Os quedan cinco minutos para terminar. Todavía tenéis tiempo para contestar alguna pregunta más. Quienes hayáis terminado, repasad las respuestas o completad alguna que hayáis dejado en blanco.

Mientras tanto, y sin moveros del sitio, podéis sacar un libro para leer en silencio hasta que todos terminen la prueba.

*Cuando se cumplan los 40 minutos de la prueba:*

Ha terminado el tiempo.

## MATEMATIKARAKO KOMPETENTZIA

*Irakasleak ikasleei gogoraraziko die kalkulagailua eduki behar dutela eragiketak egin ahal izateko eta orri zuri bana banatuko die eragiketak egiteko.*

Orain, matematikako galderei buruzko proba egingo dugu. Mahai gainean BOLIGRAFOA edo ARKATZA, tipexa, kalkulagailua eta eta orri zuri bat, ziriborro moduan, baino ezin duzue eduki.

*Koadernoak banatuko dira.*

Ez ireki koadernoak nik esan arte.

Ozen irakurriko ditut jarraibideak. Zabaldu koadernoak, mesedez.

*Irakasleak ozen, poliki eta esaldi bakoitzaren ondoren geldituz irakurriko ditu jarraibideak.*

**Proba honek bi zati ditu: Kalkulua eta Matematika.**

### KALKULUA

**Orain, kalkulu mentaleko ariketak aurkituko dituzu eta 6 minutu izango dituzu horiek egiteko. Nik esango dizut noiz igaro diren 6 minutu horiek.**

### MATEMATIKA

**Atal honetan, beste modu bateko matematika ariketak izango dituzu.**

**Galdera gehienetan erantzun egokia aukeratu beharko duzu.**

**Beste ariketa batzuetan, zuk zeuk idatzi beharko duzu erantzun zuzena.**

**Ariketa batzuetan kalkulagailua erabili beharko duzu datu batzuk kalkulatzeko, eta beste batzuetan berriz, zeuk erabaki ahal izango duzu. erabili ala ez. Orri zuri bana banatu dizuet ziriborro gisa ariketak egiteko.**

**6 minutu** dituzu **Kalkuluko** ariketak egiteko. Nik esango dizuet 6 minutu horiek paszen direnean. Orain, has zaitezketekete.

*6 minutuak igarotakoan, honakoa esango du irakasleak:*

Amaitu da **Kalkuluko** ariketetarako denbora. Orain, joan zaitezte **Matematikako** orrira.

34 minutu dituzue proba hau erantzuteko.

Proba egiten ari zareten bitartean zalantzaren bat baldin baduzue, altxatu eskua eta ni hurbilduko naiz zuengana laguntzera. Orain, has zaitezketekete.

*Inork galdera ireki edo erdi irekiren bat erantzuterakoan laguntzarik behar badu, azaldu egiozu nola egin. Inork amaitu badu, liburu bat atera dezake isilik eta lekutik mugitu gabe irakurtzeko, denek amaitu arte.*

*29 minutu igarotakoan eta amaitzeko 5 falta direnean, honako hau esan:*

**5 minutu** dituzue amaitzeko. Oraindik nahikoa denbora daukazue galderaren bat gehiago erantzuteko.

*Probaren 34 minutuak igaro direnean, honako hau esan:*

Denbora amaitu da.

## KONPETENTZIA ZIENTIFIKOA

Orain, Natur Zientzietan buruzko proba egingo dugu. Mahai gainean bakarrik BOLIGRAFOA edo ARKATZA eta borragoma eduki ahal dituzue eta, nahi baduzue, tipexa.

*Ondoren, koadernoak banatuko dira.*

Ez ireki koadernoak nik esan arte.

**Proba honetan aurkituko dituzu giza gorputzarekin zerikusia daukaten gaiak, eta zientzia eta ingurumenarekin.**

**Galdera bakoitzaren hasieran, informazio orokorra azaltzen da, galderei erantzuteko datu garrantzitsuak ematen dituen (testu bat, egoera bat...).**

**Galderak modu askotakoak dira. Erantzuteko, arretaz irakurri beharko duzu galdera horietako bakoitzean azaltzen den informazioa.**

Ez hasi proba egiten nik esan arte. 45 minutu dituzue galderak erantzuteko.

*Zalantzak argitu eta honako hau esan:*

Poliki irakurri testuak eta ahalik eta ondoen erantzun.

Hasi zaitezketek.

*35 minutu igarotakoan eta, beraz, amaitzeko 5 gelditzen direnean, honako hau esan:*

Bost minutu geratzen zaizkizue amaitzeko. Oraindik denbora daukazue galderaren bat gehiago erantzuteko. Amaitu duzuenok, begiratu berrirori erantzunak, edo saiatu orain erantzuten lehen zuri utzitakoak. Bitartean, eta lekutik mugitu gabe, liburu bat atera ahal duzue, denek proba amaitu arte, isilik irakurtzeko.

*Probaren 40 minutuak igaro direnean, honako hau esan:*

Denbora amaitu da.

## HIZKUNTZA ETA LITERATURAKO KOMPETENTZIA EUSKARAZ ENTZUMENA ETA IRAKURMENA

*Irakasleak KOADERNOAK banatuko ditu ordena jarraituz.*

Orain EUSKARA proba egiten hasiko gara. Badakizue, mahai ganean bakarrik BOLIGRAFOA edo ARKATZA eduki behar dituzuela eta nahi baduzue, TIPEXa edo borragoma. Ez ireki koadernoak nik esan arte.

**Proba honek bi atal ditu: entzumena eta irakurmena.**

**Orain bi audio desberdin entzun behar dituzue eta ondoren galdera batzuei erantzun diezue. Audio bakoitza, gainera, bi aldiz entzungo duzue.**

**Grabazioa entzuten duzuen bitartean, galderari erantzun behar diezue.**

**Galdera baten erantzuna ez badakizue, utzi eta joan hurrengora. Ez hasi proba egiten oraindik.**

**Gero testu batzuk irakurriko dituzue eta ondoren galdera batzuei erantzun diezue. Horietako batzuk errazak izango dira eta beste batzuk zailak. Erantzun egokia aukeratu behar duzue.**

Hasi baino lehen testuaren galderak irakurri behar dituzue.

Orain, audioa jarriko dut.

Entzuten duzuen bitartean galderari erantzun behar diezue. Grabazio bakoitza amaitu ondoren minutu bat izango duzue zuen erantzunak errepasatzeko.

*Bigarren grabazioa amaitu denean eta minutu bat pasa ondoren:*

Entzumen proba amaitu da. Orain, joan zaitetzete, mesedez, irakurmena hasten den orrialdera probaren bigarren partea egiteko.

Astiro irakurri testuak eta galderak eta, ondoren, erantzuna ahalik eta hoberen. Has zaitetzete, mesedez!

*35 minutu pasatu eta gero (beraz, amaitzeko 5 minutu falta direnean) esan behar du:*

Bost minutu daukazue bukatzeko. Denbora daukazue galderaren bat gehiago erantzuteko. Bitartean, eta tokitik mugitu gabe, liburu bat atera dezakezue isilik irakurtzeko, denok proba amaitu arte.

*Probaren 40 minutuak betetzen direnean, esan:*

**Bukatu da denbora.**

## HIZKUNTZA ETA LITERATURA KOMUNIKAZIOA INGELESEZ ENTZUMENA, IRAKURMENA ETA IDAZMENA

Orain, INGELESEKO proba egingo dugu. Badakizue, mahai gainean BOLIGRAFOA edo ARKATZA eduki ahal duzuela, eta nahi izanez gero, tipexa edo borragoma.

*Ondoren, koadernoak banatuko dira.*

Orain, ireki koadernoak.

Orain ahots goraz irakurrikko dizkizuet jarraibideak.

### **PROBA HONEK HIRU ATAL DITU: ENTZUMENA, IRAKURMENA ETA IDAZMENA.**

**Aurrena minutu batzuk utziko dizkizuet, ahozko testuko galderak irakurtzeko.**

**Orain, lehen audioa jarriko dizuet. Arretaz entzun.**

**Galderei erantzun behar diezue grabazioa entzun bitartean.**

**Grabazio bakoitza amaitu ondoren, minutu bat izango duzue zuen erantzunak erreparasatzeko.**

*Bigarren grabazioa amaitutakoan irakasleak honakoa esango dio taldeari:*

Entzumeneko proba amaitu da. Orain, bigarren zatia egin behar duzue, irakurmena eta idazmenari dagokiona.

Erabili boligrafoa edo arkatza galderak erantzuteko eta testua idazteko.

Irakurri arretaz testua eta galderak, eta ondoren, ahal den ondoen erantzun.

Hasi dezakezue proba, mesedez.

*35 minutu igarotakoan eta, beraz, amaitzeko 5 gelditzen direnean, honako hau esan:*

Bost minutu geratzen zaizkizue amaitzeko. Oraindik denbora daukazue galderaren bat gehiago erantzuteko. Amaitu duzuenok, begiratu berriro erantzunak edo bete zuriz utzitakoak. Bitartean, eta lekutik mugitu gabe, liburu bat atera ahal duzue, denek proba amaitu, arte isilik irakurtzeko.

*Probaren 40 minutuak igaro direnean, honako hau esan:*

Denbora amaitu da.

# **ORDENAGAILUZ APLIKAZIOA**

**MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA**

**HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOA: EUSKARA**





## ORDENAGAILUZ APLIKATZEKO JARRAIBIDEAK

Probak hasi baino lehen eta ikasleak sartu baino lehen irakasleak, irakasleek ikasgela antolatuko dituzte. Ordenagailuak piztu esandako moduan, jarraibide hauei jarraituz.

Eredu probak ordenagailu soportuan eskuratzeko, beharrezkoa da Interneten sartzea (ahal bada FIREFOX nabigatzailearen azken bertsioarekin). Hona hemen helbidea:

<http://ediagnostikoak.net/lh316eredua/sartu.htm>

Sartzerakoan honako pantailan eskatuko du erabiltzailea eta pasahitza bat:

Irakasleak edo ikasleak erabiltzailea eta pasahitza sartuko ditu hurrengo pantailan.

**Erabiltzailea:** lh316

**Pasahitza:** eredua

Helbide horrek orrialde batera eramango gaitu eta han, ikasleen kodeak eta jaitze data, eta probaren kodea ere sartu beharko dira.

Hala ere, ikastetxe bakoitzak Matematikarako Konpetentziaren eredu proba euskaraz edo gaztelaniaz egitea aukera dezake. Aukerakoaren arabera, proba hizkuntza batez edo besteaz egingo da.

Hauek ordenagailuz eskuragarri dauden bi konpetenzien proba ereduak kodeak dira.

**MATEMATIKA / MATEMÁTICAS:** ML2470

**EUSKARA:** EL2569

Gero sakatu Bidali / Enviar botoian.

Sartzeko pasahitza hauek idatzi ondoren, egin beharreko konpetentzien eredu proben izenak (Euskara eta Matematika / Matemáticas) izango dira.



LH 3. MAILAKO DIAGNOSTIKO EBALUAZIOA  
EVALUACIÓN DE DIAGNÓSTICO DE 3º EP

**Ebaluazio probak**

**Pruebas de evaluación**



**GARRANTZITSUA:** Hona hemen erabiltzeko jarraibide batzuk (benetako probetan erabilgarriak izango dira ikasleentzat):

- "F|I": pantaila osoa moduan jartzeko.
- "Ktrl +": pantailako letra handiagotzeko (erabilgarria ikusmen-arazoren bat duten ikasleentzat).
- "Ktrl -": pantailako letra txikiagotzeko.

# EREDU PROBEN APLIKAZIORAKO JARRAIBIDEAK

## **OHAR GARRANTZITSUAK**

- "F11": pantaila osoa moduan jartzeko.
- "Ktrl +" : pantailako letra handiagotzeko (erabilgarria ikusmen-arazoren bat duten ikasleentzat).
- "Ktrl -" : pantailako letra txikiagotzeko.



## EREDU PROBEN APLIKAZIORAKO JARRAIBIDEAK

### MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA

Irakasleak gogoratuko die ikasleei kalkulagailua mahaigainean eduki behar dutela eta orri zuri bana emango die eragiketak egiteko.

Orain proba berri bat egingo duzue matematika galderak erantzuteko. Badakizue mahai gainean bakarrik idazteko BOLIGRAFOA/BOLALUMA edo ARKATZA eta tipexa edo borragoma eduki ditzakezuela, zirriborro modura erabili ahal izango duzuen orri zuria.

Ikastetxe bakoitzak Matematikarako Konpetentziaren eredu proba euskaraz edo gaztelaniaz egitea aukera dezake. Aukerakoaren arabera, proba hizkuntza batez edo besteaz egingo da.

Irakaslea mahai artean ibiliko da ziurtatzeko ikasle guztiak ari direla behar bezala egiten. Eta jada ordenagailu guztietan agertu denean ondorengo pantaila, esango zaie:



Orain, klikatu Matematika / Matemáticas jartzen duen botoia. Baina ez hasi proba egiten nik esaten dizuedan arte.

Irakasleak egiaztatu behar du ikasle guztiak daudela Konpetentzia honen hasierako pantailan. Jarraibideak irakurri behar ditu ozenki, astiro eta esaldi bakoitza bukatzean pausa bat eginez.

**Proba honek bi atal ditu, Kalkulua eta Matematika.**

#### **KALKULUA**

Atal honetan, buruzko kalkuluak egin beharko dituzu eta horretarako 6 minutu izango dituzu.

Nik esango dizut noiz pasatu diren 6 minutu hauek.

#### **MATEMATIKA**

Atal honetan, beste mota bateko matematika ariketak egin beharko dituzu.

Galdera gehienetan, erantzun zuzena aukeratu beharko duzu.

Beste batzuetan, zuk idatzi beharko duzu erantzuna.

Ariketa batzuetan kalkulagailua erabili beharko duzu zenbait datu kalkulatzeko, beste batzuetan zuk erabakiko duzu kalkulagailua erabiliko duzun ala ez. Paperezko orri zuri bat banatu dizuet, zirriborro moduan erabiltzeko ariketak egiterakoan.

**6 minutu** dituzu **Kalkuluko** ariketak egiteko. Nik esango dizuet 6 minutu horiek pasatzen direnean. Orain, ja hasi zaitezke.

*6 minutuak igarotakoan, honakoa esango du irakasleak:*

Amaitu da **Kalkuluko** ariketetarako denbora. Orain, joan zaitezte **Matematikako** orrira.

34 minutu dituzue proba hau erantzuteko.

Proba egiten ari zareten bitartean zalantzaren bat baldin baduzue, altxatu eskua eta ni hurbilduko naiz zuengana laguntzera. Orain, hasi zaitezke.

*Galdera irekia edo erdi-irekia erantzuteko orduan, norbaitek zalantzak izango balitu, adiera iezaiozu nola egin. Norbaitek lehenago bukatu badu, atera lezake liburu bat isilean irakurtzeko bere lekutik mugitu barik proba amaitu artean.*

*29 minutu igaro direnean, eta beraz, amaitzeko 5 minutu faltako direnean, esan:*

Bost minutu dituzue amaitzeko. Oraindik denbora nahikoa duzue beste galderaren bati ere erantzun ahal izateko.

*Behin probako denbora amaituz gero, irakasleak konprobatu beharko du ikasle guztiek proba bukatu dutela eta konpetentzia guztiak zerrendatzen diren pantailan daudela. Ikasleek eragiketak egiteko erabili dituzten orriak jaso beharko ditu.*

*Probaren 34 minutuak igaro direnean, honako hau esan:*

Denbora amaitu da. Mesedez, jaitsi ordenagailuaren tapa. Orain konprobatuko dut guztiok hasierako pantailan zaudetela. Ez bazaude, emaiozu “hurrengo” botoira hasierako pantaila agertu arte. Bitartean, eta tokitik mugitu gabe, liburu bat atera dezakezue isilik irakurtzeko, denok proba amaitu arte.

Bukatutakoan, ez ahaztu BUKATU botoia sakatzea.


Zu ez bazaude, emaiozu “hurrengo” botoiari hasierako pantaila agertzen den arte.

## HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOA: EUSKARA ENTZUMENA ETA IRAKURMENA

*Euskara proba hasi baino lehen eta ikasleak sartu aurretik, irakasleek ikasgelak antolatuko dituzte.*

*Irakasleak esango die:*

*Irakaslea mahai artean ibiliko da ziurtatzeko ikasle guztiak ari direla behar bezala egiten. Eta jada ordenagailu guztietan agertu denean ondorengo pantaila, esango zaie:*



**Orain, jo Euskara jartzen duen botoian. Baina ez hasi proba egiten nik esan arte.**

*Irakasleak egiaztatu behar du ikasle guztiak daudela Konpetentzia honen hasierako pantailan. Jarraibideak irakurri behar ditu ozenki, astiro eta esaldi bakoitza bukatzean pausa bat eginez.*

**Nik azalpenak ozenki irakurriko ditut.**

*Irakasleak jarraibideak irakurriko ditu, ozenki eta astiro, pausaldi bat eginez esaldi bakoitza amaitzean.*

### **PROBA HONEK BI ATAL DITU: ENTZUMENA ETA IRAKURMENA.**

**Irakurri mesedez pantailaren eskuineko aldean dauden galderak.**

**Proba honen lehenengo zatia ENTZUMENA da. Audioak bi aldiz entzungo dituzue. Grabazioa entzuten duzuen bitartean, galderei erantzun behar diezue. Entzun eta, aldi berean, erantzuna aukeratu.**

**Bigarren zatia IRAKURMENA da. Testu batzuk irakurriko dituzue eta ondoren galdera batzuei erantzungo diezue.**

**Galdera baten erantzuna ez badakizue, utzi eta joan hurrengora. Ez hasi proba egiten oraindik.**

**Gero testu batzuk irakurriko dituzue eta ondoren galdera batzuei erantzungo diezue. Horietako batzuk errazak izango dira eta beste batzuk zailak. Erantzun egokia aukeratu behar duzue.**

**AUDIO PROBA: Mesedez, sakatu hurrengo botoian (play) eta entzun probak egiteko audio grabazio bat. Baieztatu aurikularrak ondo konektatuta daudela eta audioaren bolumena egokia dela.** 

**Orain jarri aurikularrak, sakatu Play ikonoa eta gogoratu: entzun eta, aldi berean, markatu erantzunak.**

*Ikasleak proba egiten duten bitartean, konprobatu behar da aurrera doazela. Minutu batzuk pasa eta gero, esan:*

**Gogoratu ondorengo orrira joateko HURRENGOA botoian sakatu behar duzuela.**

*Garrantzitsua da, probaren hasieran bereziki, mahaien artean pasatu ikasleak irakurtzen eta idazten ari direla ziurtatzeko. 35 minutu igarota eta, beraz, amaitzeko 5 minutu faltako direnean, esan:*

**Bost minutu dituzue amaitzeko. Oraindik denbora nahikoa duzue galdera baten bati erantzuteko. Bitartean, eta tokitik mugitu gabe, liburu bat atera dezakezue isilik irakurtzeko, denok proba amaitu arte. Bitartean, eta tokitik mugitu gabe, liburu bat atera dezakezue isilik irakurtzeko, denok proba amaitu arte.**

**Bukatutakoan, ez ahaztu BUKATU botoia sakatzea.**

*Probako 40 minutuak beteko direnean, esan:*

**Denbora amaitu da. Orain konprobatuko dut guztiok hasierako pantailan zaudetela. Ez bazaudete, emaozue “hurrengoa” botoira hasierako pantaila agertu arte.**

*Proba amaitutakoan, aplikatzaileak konprobatu behar du ordenagailu guztian konpetentzien zerrenda dagoen pantaila agertzen dela.*

**Denbora amaitu da. Mesedez, jaitsi ordenagailuaren tapa.**



